

Maisu zaharraren ondareak bizirik dirau

Joseba Arruti

Deia. Diario de Araba, 2004-10-05: 48.

Kazetaritza euskaraz ikasi eta landu dugun guztiontzako Martin Ugalde ezinbesteko eredua izan da beti, bokazioak fakultatera noiz eramango irrikan geundenetik. Garai zailenetan aitzindari izanak ezezik, bere jardunean beti zintzotasunetik eta giza baloreetatik abiatzeak eman zioten ikur kutsu hori. Objektibitatea oso iheskorra den arren, harrapaezina seguruenik, badira kazetari lanar idealismorik miresgarrienak bultzatuta heltzen diotenak. Horietakoa zen Andoaingo maisua. Egunero jazotzen denaren gurpil zoroari euskaraz jarraitzea ez da inoiz eroso izan, ezta gaur egun ere, eta gutxik izan duten konpromiso maila eskatzen du. Euskal hizkuntzaren alde gaztelerazko aldarrikapen hutsalekin ahoa berotzetik berorren normalizaziorako lan eraginkorra egitera dagoen jauziak bertigoa eragin du gehiegitan. Haatik, Martin Ugaldek ondotxo zekien Euskal Herriaren nazio ikuspegiaren aldeko betebeharrak euskararekin estu uztartuta dagoela. Venezuelako erbestean ekin zion kazetaritzari, eta bertan zegoela hasi zen euskarazko literatur lanak sortzen. 1969an sorterrira itzuli zenean, "Zeruko Argia"n lagundu zuen, lau urte beranduago poliziak behartuta Iparraldean aterpetu behar izan zuen arte. Hegoalderako bidea berriz egindakoan, DEIA sortu berriko euskarazko taldearen erredaktoreburu izendatu zuten eta etxe honen lehen urratsak berarekin lotuta daude, neurri handi batean. Beranduago, "Euskaldunon Egunkariko" sortzaileetakoa eta administrazio kontseiluko lehendakari izan zen 1990az geroztik eta euskarazko kazetaren itxieraren inguruko gordinkeriak jasan zituen, zor zitzaion begirunea basakeriz zapaldu zutenean. Bizitako 82 urteak alperrik joan ez diren seinale, ondare aberatsa utzi du heriotzaren orduan. Euskara noizean behin haizaratu daitekeen errelikia izan beharrean, etorkizunez betetako nortasun adierazpidea dela uste dugunok bildu gaitu bere itzal luzearen inguruan. Martin Ugalde bezalako asko behako dira aurrerantzen kazetaritzaren alde ederrenari eusteko eta Euskal Herria bere hizkuntza zaharrean lau haizetara mintzatzen jarraitzeko.